

BAPOREA



BILDUMA

Gabriela Keselman
Etiketa untxiak

Irudiak: Teresa Novoa



ikasmina

Argitalpen zuzendaritza: Elsa Aguiar
Koordinatzailea: Berta Márquez

Jatorrizko izenburua: *Conejos de etiqueta*

© testuarena: Gabriela Keselman, 2004

© irudiena: Teresa Novoa, 2004

© IKASMINA Argitaletxea, 2008

Huertas de la Villa, 9


48007 Bilbao (Vizcaya-Bizkaia)

Copyright-aren jabeen alde zuzeneko eta idatziriko baimenik gabe debekaturik dago liburu honen berregintza, osoan edo zatian, egitea arlo hauean: bere erabilera informatikoan, bide elektriko nahiz mekaniko erazko emanaldietan, fotokopietan, baita erregistroz edo bestelako moduz ere.

Ana Cañizal-entzat



Bazen untxi bat
hogei aldiz.
Edo, hobeto esanda,
bazen behin
hogei untxi txiki.
Denak grisak,
belarri luzedunak
eta untxi aurpegidunak.

The page features a central illustration of a bright yellow sun. Surrounding the sun are several grey rabbits wearing red pants. Some rabbits are positioned at the top of the page, appearing to be upside down, while others are at the bottom, standing upright. The rabbits are interspersed with green leafy plants and orange carrots. The overall style is whimsical and colorful.

Hogeiek untxi-bizimodu
lasaia zeramaten,
amaren eta aitaren ondoan,
Untxiaga herrian.

Egun batean, inoiz gertatu gabeko
zerbait gertatu zen.

Untxi jaun-andreek gutun bat jaso zuten.
Untxi jaunak goranzko jauzi bat egin zuen.
Eta denbora luzea pasatu zen jaitsi
baino lehen.





Gero, Untxi andreak
beheranzko jauzi bat egin zuen.
Eta, beraz, ez zen oso urrunera joan.


Gutuna batak besteari
eta besteak batari eman zion.

Ondo irakurrita
eta koipez zikinduta utzi zutenean,
zera oihukatu zuten pozaren pozez:

–Azenario Birrinduaren Lehiaketan
parte hartzeko aukeratu gaituzte!

Untxi aita hain zegoen urduri
biboteak erauzten ari baitzen.

Untxi ama maletekin
behaztopatzen ari zen.





Eta biek telefono beretik
hots egin zioten Untxi amonari.

–Etorri behar duzu
eta bilobak zaindu hiru egunetan.

–Bilobak hiru egunetan zaindu
eta etorri behar duzu.



Untxi amonari ideia zoragarria
iruditu zitzaion.

Arazo bakarra zegoen.

Untxi amona munduko amonarik
arretagabeena zen.



Heldu zenean,
Untxi jaun-andreek
argibideak eman zizkioten
azkar-azkar.

–Idatziko dut dena
–esan zuen amonak.

Horrela ez naiz nahastuko.
Etiketa batzuk atera



